

Premio a la Promoción del Talento Artístico 2021

El Premio a la Promoción del Talento Artístico tiene como objetivo apoyar e impulsar la iniciativa de jóvenes emprendedores en el ámbito artístico y cultural, servir de referente a la juventud, y acompañar en el camino de la visibilización y profesionalización del talento emergente en Navarra.

2021ko Talentu Artistikoa Sustatzeko Saria

Talentu Artistikoa Sustatzeko Sariak helburu du gazte ekintzaileek artearen eta kulturaren arloetan duten ekimena babestu eta bultzatzea, bai eta gazteentzat erreferente bihurtzea ere, eta Nafarroan sortzen ari den talentua ikusarazteko eta profesionalizatzeko bidean laguntzea.

LUGAR Y PLAZO DE PRESENTACIÓN DE LAS CANDIDATURAS

Las propuestas se dirigirán al Departamento de Cultura y Deporte, calle Navarrería, 39-31001 Pamplona (España), por correo certificado, indicando en el sobre “Premio a la Promoción del Talento Artístico 2021”. En el caso de que el envío se realice por servicio de mensajería, se deberá remitir un correo electrónico a la dirección dg.cultura.ipv@navarra.es comunicando el envío dentro del plazo de presentación de propuestas.

Las propuestas se podrán presentar asimismo a través de correo electrónico, en la dirección dg.cultura.ipv@navarra.es

Ya se ha abierto el plazo de presentación de candidaturas y se finalizará el 3 de mayo de 2021.

HAUTAGAITZAK AURKEZTEKO EPEA ETA TOKIA

Proposamenak Kultura eta Kirol Departamentura igorriko dira (Navarrería kalea 39, 31001 Iruña, Espainia), posta ziurtatuaren bidez, gutun-azalean “2021ko Talentu Artistikoa Sustatzeko Saria” adierazita. Mezularitza zerbitzuaren bidez igorri gero, posta elektronikoko bat bidali beharko da dg.cultura.ipv@navarra.es helbidera, eta igorpenaren berri eman beharko da, proposamenak aurkezteko epearen barnean.

Proposamenak, orobat, posta elektronikoz ere aurkezten ahalko dira, dg.cultura.ipv@navarra.es helbidean.

Hautagai-zerrendak aurkezteko epea dagoeneko zabalik dago, eta 2021eko maiatzaren 3an bukatuko.

REQUISITOS DE LA PRESENTACIÓN DE CANDIDATURAS

Las personas candidatas deberán tener entre 18 y 30 años, con residencia legal en Navarra, con referencia al día final del plazo de presentación de candidaturas; en caso de no tener residencia legal en Navarra, deberá acreditarse que la persona candidata ha participado en proyectos o actividades relacionados o vinculados con Navarra. También podrán ser candidatas entidades legalmente constituidas compuestas por personas que todas ellas cumplan los requisitos individuales referidos.

Las candidaturas pueden ser presentadas por las personas solicitantes del Premio para sí mismas o para las entidades a las que representen legalmente.

La presentación de las candidaturas al Premio supone la aceptación total de las bases, así como de los acuerdos que adopte el Jurado del Premio.

HAUTAGAITZAK AURKEZTEKO BALDINTZAK

Hautagaiak 18 eta 30 urte artean izan beharko dute, eta legezko bizilekua Nafarroan eduki, hautagaitzak aurkezteko epea bukatu baino lehen. Hautagaiak legezko bizitokia Nafarroan ez badu, egiaztatu beharko du Nafarroarekin erlazionatutako edo lotutako proiektu edo jardueretan parte hartu duela. Legez eraturako entitateak ere hautagai izaten ahalko dira, entitatea osatzen duten pertsona guztiak aurreko paragrafoan aipatu baldintza indibidualak betetzen badituzte.

Saria norberarentzat edo norberak legez ordezkatzeko dituen entitateentzat eskatzen dutenek aurkezten ahalko dituzte hautagaitzak.

Sarirako hautagaitzak aurkezteak berekin dakar oinarri goitik behera onartzea, baita epaimahaiak hartzen dituen erabaki guztiak ere.

DOCUMENTACIÓN REQUERIDA

Las entidades o personas indicadas en el punto 2, presentarán la candidatura adjuntando la siguiente documentación:

- a) Datos acreditativos de la personalidad jurídica de la entidad o en su caso, de las personas proponentes, en donde se indique: nombre, dirección, teléfono, página web si la tuviera, NIF o similar, así como aquellos otros documentos que se estimen pertinentes para un mejor conocimiento por parte del Jurado.
- b) Memoria explicativa (máximo 1.000 palabras), en la que se recojan los relevantes méritos que avalan la presentación de la candidatura de la persona o entidad y el resto de información que se crea conveniente y que acredite los méritos estimados para acceder a este galardón.
- c) Al menos una carta de apoyo a la candidatura suscrita por una persona o entidad relevante en el ámbito artístico y cultural.
- d) Cualquier otra documentación complementaria que permita avalar y verificar los méritos alegados.
- e) En caso de ser solicitado por el Jurado, las personas o entidades candidatas podrán realizar una defensa de su candidatura ante aquél.

AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

Bigarren puntuan aipatutako entitate edo pertsonen, hautagaitza aurkezten dutenean, dokumentazio hau erantsiko dute:

- a) Entitatearen nortasun juridikoa frogatzen duten datuak, edo kasua bada, proposamena egiten duten pertsonenak, honako hauek adierazita: izena, helbidea, telefonoa, web-orria (baldin badu), IFZ edo antzekoa, eta epaimahaiak gehiago jakin dezan egokitzat jotzen diren beste dokumentu batzuk.
- b) Azalpen memoria bat (1.000 hitz gehienez), delako pertsona edo entitatea aurkezteko oinarri diren merezimendu aipagarriak jasotzen dituen, baita egokitzat jotzen den gainontzeko informazioa ere, saria eskuratzeko kontuan hartzen diren merezimenduen frogagarri.
- c) Hautagaitza babesten duen gutun bat gutxienez, artearen edo kulturaren arloan ospea duen pertsona edo entitate batek sinatua.
- d) Beste edozein dokumentazio osagarri, alegatutako merezimenduak indartu eta egiaztatzeko.
- e) Epaimahaiak halakorik eskatzen badu, pertsona edo entitate hautagaiek hautagaitzaren defentsa egiten ahalko dute haren aurrean.

TRAMITACIÓN

Para cualquier información relativa a este premio podrá contactarse con la Dirección General de Cultura-Institución Príncipe de Viana del Departamento de Cultura y Deporte, telefónicamente (848 424608) o mediante la dirección de correo electrónico dg.cultura.ipv@navarra.es

La resolución de todas las cuestiones que puedan surgir o plantearse sobre el Premio son de exclusiva competencia de la entidad convocante.

TRAMITAZIOA

Sari honi buruzko beste edozein informaziotarako, Kultura eta Kirol Departamentuko Vianako Printzea Erakundea-Kultura Zuzendaritza Nagusira jo daiteke, telefono bidez (848 424608) edo posta elektronikokoaren helbidea baliatuz: dg.cultura.ipv@navarra.es

Deialdia egiten duen entitatearen eskumena da, ez beste inorena, sariaren inguruan sortu edo planteatzen diren arazo guztiak ebaztea.

JURADO, FALLO, CONCESIÓN Y ENTREGA DEL PREMIO

El Jurado del premio estará formado por la persona que ostente la Dirección General de Cultura-Institución Príncipe de Viana, las personas que ocupan las direcciones de los Servicios adscritos a dicha Dirección General, y por un miembro del Consejo Navarro de la Cultura y las Artes. El secretario de dicho Consejo, que tendrá voz pero no voto, asistirá al Jurado en sus funciones.

Las candidaturas presentadas serán analizadas por el Jurado que valorará, además de los relevantes méritos que en ellas concurren, el especial impacto social y cultural en Navarra de los proyectos o actividades en los que ha participado.

Votación. Se realizará una primera votación entre todas las candidaturas, y las dos que obtengan mayor número de votos se someterán a una segunda ronda en la que quedará ganadora la que obtenga más votos.

En su caso, se celebrarán votaciones de desempate en la primera y en la segunda ronda.

Si una de las candidaturas obtuviera la mitad más uno de los votos en la primera votación, será elegida la ganadora.

El fallo se anunciará mediante rueda de prensa a los distintos medios de comunicación, informando de la concesión del Premio a la entidad o persona ganadora, o en su caso, declaración de que éste ha quedado desierto.

El premio será concedido mediante Orden Foral de la persona titular del Departamento de Cultura y Deporte, a la vista de la propuesta realizada por el Jurado.

La entrega del premio se efectuará en acto público organizado a tal fin, en fecha que se anunciará oportunamente.

EPAIMAHAIA, ERABAKIA ETA SARIA EMATEA

Honako hauek osatuko dute epaimahaia: Vianako Printzea Erakundea-Kulturako zuzendari nagusia, zuzendaritza nagusi horri atxikitako zerbitzuetako zuzendariak eta Nafarroako Kulturaren eta Arteen Kontseiluaren kide bat. Kontseilu horretako idazkariak, hizpidea duela baina botorik ez, epaimahaiari lagunduko dio bere zereginetan.

Epaimahaiak aurkezten diren hautagaitzak aztertuko ditu, eta, bakoitzaren merezimenduz gainera, honako hau ere baloratuko du: hautagaiak zer proiektu edo jardueratan parte hartu duen, horiek Nafarroan izan duten eragin sozial eta kulturala.

Bozketa. Lehen bozketa bat egingen da hautagaitza guztien artean, eta boto gehien lortzen duten bi hautagaitzekin bigarren bozketa-txanda bat egingen da, non boto gehien eskuratzen duena izanen den irabazle.

Kasua bada, berdinketak hausteko bozketak egingen dira lehenbiziko eta bigarren txandetan.

Hautagaitzetako batek botoen erdia gehi bat eskuratzen badu lehen bozketan, hura izanen da irabazle.

Erabakia prentsaurreko batean jakinaraziko zaie hedabideei; aditzera emanen da zein entitatek edo pertsonak irabazi duen saria, edo, kasua bada, eman gabe gelditu dela.

Kultura eta Kirol Departamentuko titularrak emanen du saria, foru agindu bidez eta epaimahaiak egindako proposamena ikusita.

Saria jendaurrean emanen da, ekitaldi bat horretarako antolatuta, behar bezala iragarriko den egunean.

**PROYECTO DE DIFUSIÓN
DEL PREMIO A LA PROMOCIÓN
DEL TALENTO ARTÍSTICO 2021**

El Departamento de Cultura y Deporte programará y/o exhibirá, de acuerdo con la persona galardonada, un proyecto artístico o cultural de un importe máximo de 10.000 euros en alguno de sus proyectos, programas propios o en otros que desarrolla en colaboración con diferentes agentes culturales en el año 2022.

**2021KO TALENTU ARTISTIKOA
SUSTATZEKO SARIAREN ZABALKUNDEA
EGITEKO PROIEKTUA**

Kultura eta Kirol Departamentuak, irabazlearekin adostuta, proiektu artistiko edo kultural bat (gehienez ere 10.000 eurokoa) programatu eta/edo erakutsiko du, bere proiektuen edo programa propioen barnean edo agente kulturekin elkarlanean garatzen dituen batzuen barnean, 2022an.

Premio a la
**Promoción del Talento
Artístico 2021**

2021ko Talentu
**Artistikoa Sustatzeko
Saria**